


# ITSASU ITXASSOU

12

HERRI ALDIZKARIA EKAINA 2024 JUIN BULLETIN MUNICIPAL



Loin du tumulte politique et olympique de Paris, la jeunesse d'Itxassou vibre d'une envie de vivre joyeuse, libre et responsable en Pays Basque. C'est le meilleur qu'on lui souhaite: un pas de danse sur l'histoire de sa terre, et un air de fête sur les musiques des peuples du monde.

Parisko burbuila politiko eta olinpikotik urrun, itsasuko gazteriak bihotza pilpil Euskal Herrian alai, libre eta arduraz bizi gosez. Hobeagorik ez diogu opatzen: dantza piko bat gure lurraren ixtorian, eta besta kantatu bat munduko herrialdeen musika doinutan.

# ÉDITO

## Auzapezaren hitza



Eskutan duzuen herri aldizkari hau kasik trenkatua zen Europako bozkaldiak bere emaitza gordina agertu aintzin eta Parisko deputatuen biltzarren desagitea jakin den baino lehenago.

2024ko ekainaren 9ko emaitzek inarrosaldi ilun eta guziz kezkarria jasanarazi du libertatea, justizia eta elkartasuna ipar orratz dugunei. Gutenez hiru itsasuarretarik bata bere bozka eman du eskuin gogorraren alde, alderdi horiek ez zutelarik sekulan gainditzen %10 ekoa hemen.

Bururatzin dugu aldizkari hau diputatuen bozkaldiak aintzin, eta laster bakotzak ikusiko du bazterketa eta intolerentziaren alderdiek berenganatu dituzten hainbeste herritar ala ekainaren 9koa ixtoriaren bitxikeria bat geldituko den.

Herriko Etxeak kokatzen dira nunbait politika erronka orokorragoen eta lekuan bereko betebeharrak batzuen bide kurutzean, herritarren beharrei hurbilez hurbil ihardetsiz.

Lau urteko hautetsaldiak Itsasuko Herriko Etxean eta lau urtetako lan jarraikiak hasten dira ondorioen agertzen. Balaki eremua trinketa berri berrituarekin eta itzulian altxatuko diren ezkalada gela eta egon gune atseginekin. Osasun etxe bat Ordokian, artabideak biderkatzeko herrian berean. Bizitegi proposamenak prezio jasangarritan, alokatzeko edo erosteko, ari dira hilabetez hilabete zehazten. Bidetan hobekuntzak eskaintzeko segurtasun gehiago mogikortasun ezteie, eta lasaitzeko motordunen bide trafikoa.

Itsasuarrek badute baikor ibiltzeko arrazoin frango, zozial baloreak lehenesten dituztenekin, klima aldaketaren ondorioen kontra lehiatzen direnekin, eta gure lurraldea, kultura eta hizkuntzaren alde zazpi eginahalak egiten dituztenekin.

**Mizel HIRIBARREN**

**Itsasuko auzapeza**

**Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Ixassou**  
**05 59 29 75 36 - Email : [accueil@itxassou.fr](mailto:accueil@itxassou.fr)**  
**Site : [www.itxassou.fr](http://www.itxassou.fr)**

**Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea**  
**Impression sur papier recyclé :**  
**Imprimerie Mendiboure Arizmendi**

Le bulletin municipal que vous êtes en train de feuilleter était déjà largement ficelé avant que ne tombe le verdict du scrutin européen et l'annonce surprise de dissolution de l'assemblée nationale à Paris.

Les résultats du 9 juin 2024 ont provoqué une sourde et très inquiétante secousse sur tous ceux qui croient à la liberté, à la justice et à la solidarité. Au moins un itsasuar sur trois a porté son choix vers la droite dure, alors même que ces partis n'ont jamais emporté ici plus de 10% des voix.

Nous bouclons ce numéro avant les scrutins qui vont élire les députés, et chacun comprendra rapidement si les partis de l'exclusion et de l'intolérance auront rallié pour de bon une trop grande proportion de nos concitoyens, ou bien si le 9 juin 2024 était un incident de l'histoire.

Les mairies sont quelque part à la croisée des chemins entre les enjeux politiques plus globaux et des obligations locales de réalisations concrètes, pour répondre aux besoins de proximité de leurs habitants.

Quatre années de mandat sur la mairie d'Ixassou et quatre années de travail opiniâtre pour enfin commencer à voir émerger des réalisations. Un complexe Balaki avec un trinquet refait à neuf et qui verra s'ériger alentour salle d'escalade et espace de convivialité. Une maison de santé sur Ordokia qui devrait multiplier l'offre de soins en proximité. Des perspectives de logements à prix maîtrisé, à acquérir et à louer, qui commencent à bien se préciser. Des aménagements sur la voirie pour sécuriser au mieux les mobilités douces et tenter d'apaiser le flux automobile.

Les itsasuar ont beaucoup de raisons de continuer à espérer avec ceux qui défendent les valeurs sociales, avec ceux qui luttent contre les méfaits du changement climatique, avec ceux qui s'impliquent dans la reconnaissance d'une identité de langue, de culture et de territoire.

**Mizel HIRIBARREN**

**Maire d'Ixassou**

## INTRAMUROS



Les nouvelles et événements d'Ixassou peuvent vous parvenir à toute heure. Il suffit de télécharger l'application intramuros sur votre téléphone portable sans oublier d'activer la notification.

**<https://appli-intramuros.fr/>**

Telekarga zazu aplikazione hori zure telefona mugikorrean. Herriko berri eta gertakari guzien jakinean izanen zira orenez oren.

# AURKIBIDEA / SOMMAIRE

## BERRIAK/ ACTUALITÉS

ORDOKIA : 8 bizileku COLekin / 8 logements avec le COL	4
POLE SANTE : eraikitze baimena eskatua/ permis déposé	4
ATTANIA : 9 egoitza herritarrentzat/ 9 logements pour des habitants qui veulent vivre ici	5
KURUTZALDIA : hiruzpalau bizitegi alokairu jasagarrian/ 3 ou 4 logements en location à loyer accessible	5
KARRIKA NAGUSIA : landare kuxak plaztikazko pitzoen ordaintzeko/ des jardinières qui remplacent les plots	6
IRIGOINEKO BIDEA : zikana bat eta aparkalekuak/ une chicane et des stationnements	6
HERRIKO ETXEA : mailuka eta palote hotsak/ le chant des truelles et des marteaux	7
BALAKI : berritz pizten ari den trinketa/ un trinquet qui reprend forme	8
BALAKI : ordainik gabeko laguntza eskakizuna/ appel à mécénat	9
ZAenr : les zones d'accélération des énergies renouvelables	9
HERRIKO BUXETA : funtzionamendu aurrekontua 2024/ budget de fonctionnement 2024	10
HERRIKO BUXETA : 2024 inbertsio aurrekontua/ budget investissement 2024	11
RECENSEMENT : biztanleriaren eta etxebizitzaren kondaketa/ recensement de la population et du logement	12
CTG : sozial ekimenari elgarrekin buru egin/ rendre efficace et cohérente la politique sociale	13
JANTEGIA : herriko jantegia/ cantine municipale	13
SUHIITZAILEAK : 109 aldiz deituak 2023/ 109 interventions des pompiers en 2023	14
OHOINTZAK : ebaste eta etxe miazterarik zaintzeko/ prévention des vols et cambriolages	14
OUTIL EN MAIN : gaztek hurbiltzen ofizialekin beren lanbideak/ les jeunes touchent aux métiers avec les artisans	15
JANTEGI : herrien eta familien sakelatik/ communes et familles contribuent	15

## LABORANTZA / AGRICULTURE - INGURUMENA / ENVIRONNEMENT

LABORANTZA : herriko biper ekoizleei laguntza/ aide aux producteurs de piment	16
LABORANTZA : mendian baitezpadako gastuak/ équipements indispensables pour le pastoralisme	16
LABORANTZA : gerezi guti Itsasun/ peu de cerises à Itxassou cette année 2024	17
LABORANTZA : Basurdeak eta orkatzak uxatzeko/ effaroucher sangliers et chevreuils	18
ENERGIA : iguzki paneletako argindarra garatzeko/ programme de développement de l'énergie photovoltaïque	18

## HAURTZAROA / PETITE ENFANCE

HAURTZAINDEGIA : Lekuonean 25 haur eta 18 heldu/ crèche Lekuonean : 25 enfants et 14 adultes	19
--	----

## HEZKUNTZA / EDUCATION

ESKOLA PUBLIKOA : zirkoa urteko proiektua/ le cirque comme projet pédagogique	20
SAN JOSEP : natura alde orotarik ikertzen/ année découverte de la nature	21
ARROKAGARAI : beren zirkoa sortu dute haurrek/ les enfants ont crée leur cirque	22

## EUSKARA

EUSKARA : egunerokoan erabilia izan dadin/ pour que l'euskara gagne de la place	23
EUSKARA : itsascoop, joko parte hartzaileak ikasgaietarik lekora/ jeux coopératifs après les cours	24
EUSKARA : euskaraz herriko bestetan/ en euskara aussi pendant les fêtes	24

## ELKARTE BIZIA / VIE ASSOCIATIVE

25-32

## BERRIAK / ACTUALITÉS

AGUR BEREZIAK : Roger Gamoy et Philippe Neys	33
GAI EZBERDINAK : korrika, pintxo pote gaualdiak.....	34

## KULTURA / CULTURE

ERROBIKO FESTIBALA : itsasu arteen aroztegi/ Itxassou forge des arts	35
KULTURA : olerki asteburua, olerki liburua, eta hitzaldia/ journées de la poésie, recueil de poésie	36
INFOS PRATIQUES : Gazteek diote eta txik txak	37

## EGUTEGIA / AGENDA

Ondoko hilabeteen egutegia/ programme des mois à venir sur Itxassou	38
OPOSIZIOA/ OPPOSITION	39
EUROPAKO BOZKALDIA : ekainaren 9ko emaitzen berri/ résultats du scrutin du 9 juin 2024	39

## LEKUKOTASUN/ TEMOIGNAGE

Bohdan eta Nataliia ukrainarrak	40
---------------------------------	----

### Ordokia : 8 bizileku COL ekin 8 logements avec le COL

**COL, langile bizitegien elkarteak**, eraikiko ditu 8 bakarkako etxe Ordokia auzoan eta BRS ean, eraikina salduz eta etxe lurra alokatuz. 8 bizitegitako proiektua : 2 T3 (hiru gela); 5 T4 (lau gela) eta 2 T5 (bost gela). 2024 urte ondarreko aintzirikusia da eraikitze baimenaren eskatzea.

Aintzindari izan da COL Ezpeletan proposatu duelakotz BRS tratua 2019an.

Ohargarria da BRS aren printzipioa, berexen dituela bizitegi edo etxe baten tratuan saltzen den eraikina eta alokatzen den etxe lurra, asmoa delarik egoitzen prezioa apalerazte eta iraupenean bermatzea egoitza ez dela prezio espekulatiboan berriz salduko.

**La Société Coopérative d'Intérêt Collectif HLM Le COL** (Comité Ouvrier du logement) va réaliser une opération de 8 logements individuels en accession sociale BRS dans le quartier ORDOKIA. Le projet comprend 8 logements : 2 T3, 5 T4, et 2 T5. Le dépôt du permis de construire est prévu fin 2024.

Pionnière en matière de BRS la SCIC le COL a livré la première opération en BRS à ESPELETTE en 2019.

Pour rappel, le principe du bail réel solidaire (BRS) est la dissociation du foncier et du bâti qui permet de baisser le prix des logements et d'instaurer des clauses anti-spéculatives pérennes.



### Pôle santé HOBELI : Permis déposé Eraikitze baimena eskatua

Osasun eragileek eta bereziki Itsasuko mediku eta farmazialariek jakinarazia zuten beren ofiziotarako gela eskasa. Itsasuko Herriko Etxeak argi zuten denen onetan behar zela herritarrentzat hurbilez hurbil arta sarerik egokiena. PLU hirigintza planak osagarri etxe batentzat ekarri zuten Ordokiako eremu parte bat, Cellan eta Lacouade saltegien auzoan.

Bertako osasun eragileek, medikuek eta farmazialariek, AEDIFIM osasun etxe egilearen ganik hurbildu dira osasun etxearen proiektua bultzatzeko, bateratzeko ongo doazken osasun eragileak hurbil eratzeko osasun eragileak eta eraikinaren altxatzeko. Lehen helburua argi eta garbi agertzen da, herritarren eta auzo herrietako biztanlen beharrronduerari ihardestea.

AEDIFIM etxearen parte bat berezitua da osasun etxe muntatzen.

Jakina, osasun etxearen lehen harria ez da oraindik ezarria Ordokian baina gutienez Herriko Etxean eskatua izan da eraikitze baimena. Osasun sailerako eragile frango bada oraingoz harremanetan AEDIFIMekin, eta haietan nahitaez mediku orokorrak eta berezituagoak, Itsasuko HOBELI osasun etxea izanen den hortan jartzeko asmotan.



Les professionnels de santé dont les pharmaciens de Gereziak et les médecins généralistes d'Ixassou manquaient de locaux disponibles. La mairie d'Ixassou était convaincue de l'intérêt général public et partagé de pouvoir offrir à ses habitants le meilleur réseau de services santé en toute proximité.

Aussi, le PLU de la commune avait inscrit une destination « maison de santé » sur une partie des surfaces à aménager d'Ordokia, en proximité des commerces Cellan et Lacouade.

Les professionnels de santé locaux ont donc sollicité l'intervention d'AEDIFIM SANTE pour concevoir le projet de maison de santé, rassembler les pratiques médicales et construire la structure. L'objectif premier est de répondre aux besoins de notre commune et de celles qui sont en première proximité.

AEDIFIM SANTE est reconnu pour sa compétence sur ce secteur spécifique.

Certes, la première pierre n'est pas encore posée sur l'espace santé d'Ordokia, mais le permis de construire a été déposé en mairie. De nombreux professionnels de santé sont déjà en contact avec AEDIFIM SANTE, dont des médecins généralistes et spécialistes pour venir s'installer sur la future maison de santé « Hobeki » d'Ixassou. »

## ATTANIA : 9 egoitza herritarrentzat 9 logements pour des habitants qui veulent vivre ici



Itsasuko herriak erosi zuen 1960 urtetan eraiki etxea bere 1500m<sup>2</sup> lurrekin, Panekau bidean, Larraburuko funtsetarik beherago. Bizitegia egiturak du kudeatzen proiektua eta laster agertuko duen proposamenen haxe ageriko da :

- 6 apartamendu T4 modukoak, 4 gela eta terrazarekin
- 3 apartamendu T3 modukoak 3 gela eta terrazarekin

Apartamenduak asmatuak dira bere egoiliarrek ukan dezaten bizi kalitate bikaina (buruan burukoa, bioklimatikoa, energiaren araudi berriei egokitua, barneko eremuak ongi baliatuak eta pentsatuak). Gainerat, « Bail Réel Solidaire » finantzamendua ukanen dute egoitzaren jabe bilakatzeko prezio ezin hobean, hurbilean lan egiten duten herritarrentzat eta herrian inplikatu bertan bizi nahi dutenentzat

Le projet se compose à ce jour de 9 logements familiaux :

- 6 appartements de type 4 pièces + terrasses (3 chambres + séjour)
- 3 appartements de type 3 pièces + terrasses (2 chambres + séjour)

Les appartements seront conçus pour faire bénéficier leurs habitants d'un véritable confort de vie (traversants, conception bioclimatique, adaptés à la nouvelle réglementation énergétique, espaces intérieurs optimisés et réfléchis) et bénéficieront d'un financement « Bail Réel Solidaire » pour permettre une accession à la propriété à un tarif imbattable pour les actifs locaux impliqués dans la vie du village et souhaitant y demeurer.

### **Kurutzaldea : Hiruzpalau bizitegi alokairu jasangarrian Trois ou quatre logements en location à loyer accessible**

Kurutzaldia hilerri sartzetik hurbil den brika gorritzko etxea da. Herriko etxeak erositako salgai zen parte bere parkearekin joan den urtean.

Herriak ikertzen ari du konbenio molde bat SOLIHArekin, hunen esku utziz luzarako, hiru edo lau apartamendu egin ditzan hemengo jendeek aloka lezazketenak.

Kurutzaldea est la bâtisse à patio extérieur à proximité de l'entrée nord du cimetière. La maison et son parc ont été acquis par la commune pour donner de l'espace à la garderie municipale et pour aménager des logements sur le bâtiment existant.

La commune étudie un mode de conventionnement avec SOLIHA, pour une mise à disposition de longue durée, et l'organisme de l'économie sociale et solidaire s'engagerait à réaliser les travaux et à proposer du logement social en partenariat avec la mairie.

Trois ou quatre appartements pourraient être aménagés sur Kurutzaldia.



## Karrika nagusia : landare kutxak plaztikazko pitzoen ordaintzeko Des jardinières qui remplacent les plots plastiques

Zurezko lili kutxek ordaindu dituzte plaztikazko pitzoak herri erdiko Karrika Nagusian.

Plaztikazko pitzoak ezarriak izan ziren ongi mugatzeko oinezkoek segurtasunez erabiltzen ahalko zuten ibilbidea. Landareek dute hemendik aintzina ordezkatzeko plaztika. Denen atseginerako. Salbu karrika hori sentzu bakar izanen zela onartzen ez duten bakarrendako. Chaleroix bidetan adituak adierazi zaukun nola landarekiek lasaitzen ahal zuten karrika batetako giroa, arras ezberdina bide nagusi eta trafikiko handiko errege bidetarik.

Preziaztekoa da estakuru huntan herriko mutilen lana eta jeinua. Berek zurez egin eta ezarri dituzte lili kutxa eder eta azkar horiek. Badakite hor herriko beste hainbat lekutan bezala landarekien ezartzen eta artozki zaintzen.

Ez dute dudarik herritarren laguntza ukanen dutela kutxen eta lilien begiratzeko ! herri erdian bizi diren itsasuarrek, hor gaindi ibiltzen edo pasatzen diren guzietan bezala, dena probetxu dute ikustea Plazako karrika hori zaindua eta apaindua.



Les plots plastiques sur Karrika nagusia Centre bourg ont laissé place à des jardinières en bois.

Les plots avaient été installés pour distinguer physiquement l'espace que les piétons pouvaient emprunter en toute sécurité. Les végétaux remplacent désormais le plastique. A la satisfaction générale, à l'exception sans doute de quelques nostalgiques d'une rue à double sens de circulation. L'expert Chaleroix nous avait indiqué combien l'élément végétal avait l'avantage de favoriser une ambiance plus apaisée, bien différente des axes routiers ou des rues à grande circulation.

Le travail et le talent des employés des services techniques de la mairie est à saluer sur ce prétexte. Ils ont réalisé et installé ces belles et solides jardinières, ils savent là et ailleurs sur la commune planter du végétal et l'entretenir avec passion, ils comptent bien sur la participation des habitants pour que ces plantations soient préservées et choyées. Les itsasuar qui vivent dans la rue, qui y marchent et qui y passent, ont tout à gagner à partager un cœur de bourg animé qui entretient son petit charme.



## Irigoineko bidea: zikana bat eta aparkalekuak une chicane et des stationnements

Herriko mutilek Irigoineko bidean ezarri dute zikana jakinerazteko oto gidariei karrika hortan abiadura motelago behar zela.

Aintzineko urteko bide kontaketek argi erakutsi zuten beribil asko zebilela zaluegi Irigoineko herri bide hortan. Bide zikana lili eta landare kutxaz eginik izan da. Helburua da karrika zuzen eta zabal horren bide nagusi itxura haustea, baita ikustea leku egokian ezarririk izan den muntadura, Irigoinea auzoko biltzar nagusian baimendua izan zena .

Les employés de la commune ont installé une chicane sur la route communale Irigoineko bidea pour inciter les voitures à lever le pied de l'accélérateur.

Les comptages routiers de l'année passée avaient montré que de nombreux véhicules dépassaient les vitesses autorisées sur cette voie communale. La chicane est constituée par des jardinières en bois. L'objectif est de rompre l'effet boulevard de cette route et de vérifier le bon emplacement de l'aménagement, dont le principe a été validé à la dernière assemblée générale des colotis d'Irigoinea.




## Herriko Etxea : le chant des truelles et des marteaux Mailuka eta palote hotsak

Itsasuarrek konprenitua dute engoitik Herriko Etxean obrak badirela. Lehen solairurat, Kontseilu gelarat eta eztei gelarat heltzeko igogailuaren ezartzeak ditu behartzen gainazpikotze horiek guziak.

Balakiko obra bilkurak astearte goizetan badira, Herriko Etxeko obra bilkurek ostegun goiza dute hitzordu. Obretan partaide diren enpresa guziak gomitatzen ditu obra kudeatzaileak hitzordu horietarat, ikusteko lanen aintzinapena, eta ihardokitzeko aldi aldi agertzen diren ezusteko guziei. Adibidez, betunezko zoladura bat desegiteko orduan elektrikako eta iturgintzako hodiz itoa, agertzen bada edo bestenez ohartzen bada fase bakarreko elektrika Herriko Etxeko eraikinian hiru faseak baitezpadakoak dituelarik ibiltzeko igogailuak.

Aspertuak dira bulegotako langileak, eta badute pazientzia ikaragarria. Aldebat errautsean lan egiterat behartuak dira, errauts eta arrabotsean ez delarik. Ezinbestekoa obrak egiten direlarik publikoari idekiak gelditzen diren eraikinean. Beharrik badela ondotik Herriko Etxe itxuraldatuaren eta lan baldintza hobeen eskuratzeko mentura, bestela gaitzetsiko lituzkete burdin hesi gerizak eta palote ala mailuken hotsak.

Makurrez kanpo, uztail ondarretik harat, Herriko Etxeak lehengo harrera gunea herritarrei, gibleko gela aldiz lehen bezala elkarteei. Iraila aintzin, liburutegirat heltzeko moldea ere igogailuz eskaileretan nekez ibiltzen diren guzientzat.



Les itsasuar auront compris que la mairie est actuellement en travaux. L'installation d'un ascenseur pour accéder en salle du conseil et des mariages et à la bibliothèque sert de prétexte à ce grand chambardement.

Les réunions de chantier concernant les travaux de Balaki sont fixées le mardi matin et celles qui concernent les travaux de la mairie occupent une partie du jeudi matin. Les différentes entreprises retenues sur chacun des sites sont conviées à ces rendez-vous par les maîtres d'œuvre pour faire le point sur l'avancée des travaux, et réagir aux multiples surprises qui ne manquent pas d'émerger régulièrement. Par exemple, un plancher béton qui se révèle farci de gaines électriques et sanitaires à la démolition, ou simplement une alimentation électrique existante en monophasé pour un ascenseur qui exige du triphasé.

Les salariées de la mairie font preuve d'une grande patience. Elles sont condamnées à travailler régulièrement dans le bruit, et en permanence dans la poussière. Toute la difficulté à réaliser des travaux sur des locaux ouverts au public ! L'espoir de retrouver une maison commune bien rafraîchie les motivent à supporter les grilles de chantier et le chant des truelles et marteaux.

A partir de la mi-juillet ou de la fin juillet 2024, si les délais sont tenus comme prévus, l'accueil au public reviendra en face de la poste, et la salle des associations retrouvera sa vocation d'origine. Dès la rentrée de septembre, l'accès à la bibliothèque pourra se faire par l'espace accueil de la mairie et l'ascenseur qui mènera directement au premier étage.



Ornement fleurs rond-point et voirie

### Web gunea / Site internet

Laster webgune berri bat herriarentzat. Berriz pentsatua, eskuragarria eta elebiduna. Udan huntan martxan izanen da.

Prochainement un nouveau site internet pour la commune. Un site repensé, accessible et bilingue. En ligne au cours de l'été.

## BALAKI : un trinquet qui reprend forme berritz pizten ari den trinketa



Hogoi bat aste obrak abiatuak direla Itsasuko trinketean. Eraikin zaharrak laster agertu behar luke berritz lehengo distira. Urte bat osoa beharko da oraindik obren bururapenerat heltzeko.

Fibra zimentazko plakaz estalia zen hegatz berritz hartua izan da, hegatz egitura bera atxikia izan delarik burdin galbanizatuz egina baitzen. Aintzindegiko aterbea eta sahetseko bizitegia deseginak izan dira.

Ipar mendealeko eta hego mendealeko kanpoko paretak emokadura berriz hartuak izan dira. Brikaz altxatuak izan ziren pareta hauk : aro txarren gatik eta mantenimendu eskasaren gatik aski estatu txarrean ziren.

Kantxa gibelesko taula ere deseginik izan da, udazken huntako ordaindua izan behar lukeelarik, pilota jokoen arabera, errexki kendu eta ezarriko litekeen taula higikor batez.

Kantxa zola ere harrotua izan da berritan eginik izateko eta errebotearen aldeko murrutarako paretak goratuak izan dira.

Izan dira luzaz eztabaidak jakiteko nolako kolorez jauntzi beharko ziren trinkete barneko murrutarako paretak. Pilotari eta pilotatzailek lukete azken hitza, deliberatzeko lehengo kolore arrosa eta horiaren ondotik ez litezkeen urdinagoak eta gris ilunekoak.

Trinketaren itzuliko eraikidurek altxatuak izan behar lukete ondoko hilabetetan. Ipar mendealean izanen diren aldagelekuak uda aintzin xutitu behar lukete, eta gibelean kokatuko den ezkalada gelak uda ondarrerekin egin lezake itzal ederra. Ondotik eraikiko dira ostatu gunea eta aktibitate gela.

Mementoz, atxikia da obren egutegia pentsatua izan zen bezala, eta obrek bururatuak behar lukete 2025eko uda hastapenerako.



Une vingtaine de semaines que les travaux ont commencé sur le trinquet Balaki. Le vieil édifice va bientôt retrouver son lustre d'antan. Il faudra encore une grosse année de travaux avant d'en arriver à la fin du chantier.

La couverture de la toiture en fibro ciment a été reprise, alors que la structure de la charpente en acier galvanisé a pu être conservée. L'auvent de façade et les aménagements abritant la conciergerie d'origine et les vestiaires ont été déconstruits.

Les façades nord ouest et sud ouest du Balaki ont été reprises avec des enduits neufs. La brique avec laquelle elles étaient construites avaient bien souffert des intempéries et du manque d'entretien des systèmes d'évacuation des eaux pluviales.

Le tambour arrière a également été démonté et il sera remplacé dès cet automne par un tambour amovible qui sera déplacé en fonction des spécialités de pelote qui seront jouées sur

la cancha.

Le sol de l'aire de jeu est en cours de démolition et les oreilles ont été remontées sur les côtés du mur de frappe.

Le choix des couleurs fait débat pour habiller les surfaces intérieures. Le club de pelote devrait avoir le dernier mot sur ce trinquet qui a connu du jaune et du rose, et dont les couleurs dominantes pourraient basculer vers le bleu et le gris noir.

Les divers aménagements autour du trinquet vont émerger dans les mois qui viennent. Les vestiaires sur la façade nord ouest prendront forme avant l'été et la salle d'escalade à l'arrière devrait être érigée avant l'automne 2024. Suivront les constructions de l'espace bar terrasse et de la salle multi activités.

A ce jour, le calendrier prévisionnel est tenu, avec une fin des travaux sur le site Balaki pour l'été 2025.

### **BALAKI : ordainik gabeko laguntza eskakizuna Appel au mécénat**

Itsasuko herriak inbertsio handia egiten du Balaki trinketearen zaharbertzean, kirol eta gizarte gune bilakatuko dena trinketa berrituari esker eta eskalada gela baten eta heren gune baten ezarpenari esker. Inbertsio publikoen finantzaketan laguntzeko, legeak mezenasgoaren erabilpena baimentzen du lurralde elkargoentzat, eta hori kirol instalazioek parte hartzen duten inbertsio batzuentzat (1° alinéa b de l'art. 200 et au 1° alinéa a) de l'art. 238 bis du CGI).

#### **Zein da horren printzipioa ?**

Finantzaizaileak partikularrak, enpresak edo fundazioak, beren Eskualde edo Herriaren garapenean parte hartu nahi dutenak. Egiten duten dohaintzak % 66ko desfiskalizazioa eskuratuko du partikularrentzat eta % 60koa fundazio eta enpresentzat. Defiskalizazio horren onuradun izateko, sozietatek eta partikularrek, zergak ordaindu behar dituzte.

Argi eta garbi, 2023an 100 €-ko dohaintza egiten duen pertsona batek 2024an aitortuko du eta 60 €-ko desfiskalizazioa ukanen du, ordaindu beharreko zergetatik deskontatua. Bere dohainak 40€ baizik ez dizkio kostako.

Prozedura hau Parisko basilikaren berreraikuntza finantzatzeko erabili da.

Herriko Etxea prefekturaren oniritzia igurikatzen ari da prozedura hori bermatzeko.

### **Energia berriztarrietan lehentasunak Les zones d'accélération des Energies renouvelables (ZAenr)**

Toutes les communes ont été sollicitées pour délibérer sur les priorités des Zones d'Accélération des Energies renouvelables (ZAenr).

La mairie d'Ixassou propose principalement d'inscrire toutes les surfaces artificialisées de la commune en ZAenr pour recevoir du photovoltaïque sur toitures et ombrelles d'aire de stationnement.

Comme l'exige l'Etat, un registre sera ouvert en mairie que les habitants pourront consulter et sur lequel ils pourront consigner leurs observations. Les dates de cette enquête publique seront communiquées par intramuros et sur le site internet de la mairie.

La commune d'Ixassou a engagé un investissement important dans la réhabilitation du trinquet Balaki qui deviendra un complexe sportif et social grâce au trinquet rénové et à l'implantation d'une salle d'escalade et d'un tiers lieu.

Pour aider au financement d'investissements publics, la loi autorise le recours au mécénat pour les collectivités territoriales et ce pour certains investissements dont les installations sportives font partie (Conformément au 1° alinéa b de l'art. 200 et au 1° alinéa a de l'art. 238 bis du CGI).

#### **Quel en est le principe ?**

Les financeurs peuvent être des particuliers, des entreprises ou des fondations voulant participer au développement de leur région ou de leur commune. Le don qu'ils feront subira une défiscalisation de 66% pour les particuliers et 60% pour les fondations et les entreprises. Pour bénéficier de cette défiscalisation, il faut être soumis à l'impôt sur le revenu ou sur les sociétés.

En clair, une personne qui fait un don de 100€ en 2023, le déclarera en 2024 et aura une défiscalisation de 60€, déduite des impôts à payer. Son don ne lui coutera « que » 40€.

Cette procédure a été utilisée entre autres pour financer la reconstruction de la basilique Notre Dame à Paris.

La mairie attend le feu vert de la préfecture qui avalisera cette procédure.




# 2024eko aurrekontua


## Le budget communal 2024

### FUNTZIONAMENDU AURREKONTUA : BUDGET DE FONCTIONNEMENT :

#### LES DÉPENSES / GASTUAK



#### LES RECETTES / SARTZEAK



	réalisé 2023	prévisionnel 2024
<b>RECETTES DE L'EXERCICE</b>	<b>2 550 516,42 €</b>	<b>2 039 245,00 €</b>
excédent de fonctionnement reporté	525 000,00 €	50 000,00 €
produits des services du domaine	157 452,93 €	143 535,00 €
impôts et taxes	470 829,00 €	510 829,00 €
imposit° directe	730 670,85 €	714 952,00 €
Dotat° subvent° participat°	448 148,56 €	447 629,00 €
autres produits de gest° courante	157 432,57 €	152 300,00 €
atténuation de charges	59 178,09 €	20 000,00 €
produits financiers	267,64 €	
produits exceptionnels	1 536,78 €	

Les recettes de fonctionnement proviennent pour la plupart des impôts locaux et taxes diverses (60% au total) et des dotations de l'état.

Une partie de l'excédent de fonctionnement de l'année précédente s'y ajoute, le reste étant viré au budget d'investissement.

	réalisé 2023	prévisionnel 2024
<b>DEPENSES DE L'EXERCICE</b>	<b>1 508 255,78 €</b>	<b>2 039 245,00 €</b>
charges à caractère général	528 670,44 €	724 200,00 €
charges de personnel et frais assimilés	640 464,19 €	750 200,00 €
autres charges de gest° courante	315 923,73 €	430 155,00 €
charges financières	19 072,67 €	18 600,00 €
dotation aux dépréciat°		1 000,00 €
Opérations d'ordre patrimonial entre sect°	4 124,75 €	2 200,00 €
virement à la sect° investissement		112 890,00 €


Les charges de personnel constituent la charge principale de fonctionnement suivies de près par les charges à caractère général constituées par toutes les fournitures et achats (matériel, fournitures diverses locations matériel etc...).

Les autres charges de gestion courante comprennent entre autres les diverses indemnités et les subventions octroyées par la commune : 60180€ dont 30 000€ au CCAS.


# 2024eko aurrekontua Le budget communal 2024

## INBERTSIO AURREKONTUA : BUDGET D'INVESTISSEMENT :

### LES DEPENSES / GASTUAK



### LES RECETTES / SARTZEAK



	Réalisé 2023	Prévisionnel 2024
<b>DEPENSES DE L'EXERCICE</b>	<b>692 455,52 €</b>	<b>2 822 333,00 €</b>
subvent° d'investissements		
emprunts & dettes assimilées	185 415,17 €	183 255,00 €
immobilisat° incorporelles	98 114,53 €	110 000,00 €
immobilisat° corporelles	318 722,59 €	
immobilisations en cours	88 278,48 €	2 263 277,00 €
autres créances immobilisées		73 317,00 €
subvent° d'équipements versés (TE64)	1 924,75 €	

En 2024, les principales dépenses concernent la réhabilitation du trinquet Balaki (1 787 327€) et de la mairie (220 950€).

Le remboursement du capital de la dette s'ajoute à ce budget (183 255€).

Une avance de trésorerie a été consentie au Sivu Artzamendi par les communes adhérentes, la part d'Itsasu étant de 30 817€.

	Réalisé 2023	Prévisionnel 2024
<b>RECETTES DE L'EXERCICE</b>	<b>1 728 843,99 €</b>	<b>2 822 933,00 €</b>
excédent d'investissement reporté N-1	1 082 392,44 €	1 036 388,47 €
excédent de fonction. partiel reporté N-1	506 158,20 €	994 260,44 €
dotations, fonds divers & réserves	134 848,60 €	160 000,09 €
subventions d'investissement reçues		491 914,00 €
emprunts & dettes assimilées	1 320,00 €	2 000,00 €
virement de la sect° fonctionnement		112 890,00 €
opérations d'ordre de transfert entre sections	2 200,00 €	2 200,00 €
opérations patrimoniales	1 924,75 €	
produits de cession d'immobilisation		23 280,00 €

Les recettes d'investissement sont essentiellement constituées par l'excédent de fonctionnement et l'excédent d'investissement de 2023.

Ce dernier est essentiellement constitué par un emprunt réalisé en 2022 en prévision de l'aménagement du trinquet Balaki.

# Biztanleriaren eta etxebizitzaren kondaketa 2024

## Recensement de la population et des logements 2024

Joan den otsailean bilketa bukatu orduko, INSEEk inkestaren lehen emaitzak jakinarazi dizkio herriari. Beraz, demografiari eta bizitegiei dagozkien zenbaki orokorrak hemen dituzue. 2018. urtearekin alderatzea erabaki dugu.

	Année 2018 urtea	Année 2024 urtea
<b>Nombre habitants</b> Zenbat biztanle	2152	2273
<b>Nombre logements collectés</b> Zenbat bizitegi	1233	1310
<b>dont résidences principales</b> Zenbat bizitegi nagusi	970 (78,68%)	1053 (80,38%)
<b>dont résidences secondaires (locations ou réservées usage propriétaires)</b> Zenbat bigarren bizitegi (alokatuak edo atxikiak)	174 (14,11%)	167 (12,75%)
<b>dont logements vacants (habitables ou non)</b> Zenbat etxe huts (bizigarri edo ez)	85 (6,89%)	84 (6,41%)
<b>dont logements occasionnels (usage pro)</b> Zenbat noiztenkako bizitegi	4 (0,32%)	6 (0,46%)

Aurreko herriko aldizkarian azaldu bezala, 2024ko inkestaren emaitzak ez dira 2025eko milesimaren ezartzeko baliagarriak izanen, baina hurrengo urteetako legezko populazioa kalkulatzeko oinarri izanen dira.

Ondoko estekan lotuz, adierazleak eta herriko txostenak ikusi ahal izanen dituzu eskualdeari buruz: demografia, bizi baldintzak, ekonomia, enplegua, hiriko politika, garapen iraunkorra (erreferentzia urtea 2021a da) :

<https://statistiques-locales.insee.fr/#c=home>

Dès la clôture de la collecte en février dernier, l'INSEE a communiqué à la commune les premiers résultats de l'enquête. Vous trouverez donc ci-dessus les chiffres globaux relatifs à la démographie et aux logements. Nous avons choisi de les comparer à l'année 2018, date du dernier recensement de la population à Itxassou.

Il est à préciser qu'à cette population municipale s'ajoute la population comptée à part (étudiants logés ailleurs pour leurs études, habitations mobiles...).

Comme expliqué sur le précédent bulletin municipal, les résultats de l'enquête 2024 ne serviront pas à établir le millésime 2025 mais serviront de base pour calculer la population légale des prochaines années.

En vous connectant sur le lien suivant, vous pourrez visualiser les indicateurs et les rapports de la commune à la région, par thème : démographie, conditions de vie, économie, emploi, politique de la ville, développement durable (l'année de référence étant l'année 2021) :

<https://statistiques-locales.insee.fr/#c=home>



### Haies, arbustes, arbres

Surveillez vos branches!

La réglementation impose de contenir toute végétation privée dans les limites de la propriété.

Nous vous demandons de veiller à la taille et l'élagage de toute végétation plantée en bordure de route afin qu'elle ne dépasse pas l'aplomb en limite du domaine public et qu'elle ne touche pas de conducteurs aériens (Edf, Télécom, éclairage public).

## Rendre efficace et cohérente la politique sociale

### Sozial ekimenari elgarrekin buru egin



Le mercredi 15 mai 2024, les 11 communes du pôle Errobi, la Communauté d'agglomération du Pays basque et la CAF des Pyrénées-Atlantiques ont signé une seconde convention territoriale globale (CTG) pour une durée de quatre ans (2024-2027) à la maison des communes d'Ixassou.

Ce partenariat vise à rendre efficace et cohérente la politique sociale sur le territoire. Ce plan comporte 20 actions concrètes en direction des parents et jeunes enfants, répondant aux besoins spécifiques liés à la petite enfance, à la jeunesse, au handicap, à la parentalité, à l'animation de la vie sociale, à l'accès aux droits et numérique et au logement.

Des missions de coopérateurs CTG seront créées pour accompagner les élus signataires à appliquer la feuille de route décidée en y associant les habitants.

Hitzarmen berri hunen bidez, ongi zehazten ahalko dira gure herrietako sozial mailako lehenetsunak, xuxen mugatu ekintzak beharorduen arabera, jarraitu baitezpadako zerbitzuen eskaintzen lurraldean, ekintza berriak garatu agertzen diren beharren arabera.

Partaidetza horren helburua da lurraldeko gizarte-politika eraginkorra eta koherentea izatea. Plano horrek 20 ekintza zehatz ditu gurasoei eta haur txikiei zuzenduta, lehen haurtzaroarekin, gaztetasunarekin, desgaitasunarekin, gurasotasunarekin, gizarte-bizitzaren sustapenarekin, eskubide eta eskubide numerikoarekin eta etxebizitzarekin lotutako beharri espezifikoerantzuteko.

CTGko kooperatibisten misioak sortuko dira, hautetsi sinatzaileei laguntzeko, erabaki den bide orria aplikatzeko.

## Herriko jantegia / Cantine municipale

Azken ikasturte hastapenetik, hiru ikastegietako ikasle gottorrenek bazkaria self service moduan hartu ahal izan zuten. Pazko ondoan, bazkari banatze molde bera eskainia izan da bigarren eta hirugarren kurtsoetakoentzat.

Ikasle eta jantegiko langileek preziatu zuten bazkari banatze aldaketa. Haurrak, bazkari denbora guzian ardura gehiagorekin dabilta, beren janari parte hartzetik baxerak itzultzi eta ondarrak berexteraino. Itxuraz, haurren harat hunat eta arrabotsa gutixago.

Gure jantegian self service zerbitzu modua entsegu bezala abiatua izan da. Denek onartzen badute aterabide ona zela, Herriak beharko du araberako tresneria egokia erosi ondoko urtetan.

Comme ce fut le cas à la rentrée scolaire de septembre 2023 pour les élèves des cours moyens, au retour des vacances de Pâques, le service cantine a été proposé en self service pour tous les enfants des classes élémentaires.

Les élèves et le personnel de service étaient satisfaits de l'évolution. Les enfants sont ainsi plus responsables pendant tout le service du repas de midi, depuis le plateau qu'ils garnissent avec le menu du jour, jusqu'au tri et rangement des plateaux et couverts en fin de service.

A l'évidence, moins d'agitation et un niveau sonore en baisse.

Le self service sur notre cantine a été initié pour expérimentation. Si l'intérêt de cette forme d'organisation est confirmé, la commune devra envisager de se doter d'équipements spécifiques à ce mode de service.



**Delphine de Oliveira**, originaire de Louhossoa, s'est installée comme psychologue sur Karrika Nagusia centre bourg d'Ixassou, en partageant les locaux avec la sage femme Camille Bernard.

Mme de Oliveira, particulièrement formée en psychologie du travail, propose entre autres de l'accompagnement professionnel, de la gestion du stress, des thérapies cognitives et comportementales....

Delphine de Oliveira Luhustarra bere psikologo ofizioan jarri da Camille Bernard Emaginarekin Itsasu herri erdiko karrika nagusian.

Oliveira anderea laneko psikologo bezala formatua izan da eta berezikiago laguntzen ahal ditu beren lanbidearekin neketan dabiltzanak, estreza kudeatzen laguntza behar dutenak, eta jarrera edo jakitate terapia beharretan dabiltzanak.

## Suhiltzaleak 109 aldiz deituak 2023an 109 interventions pompiers en 2023



**Kanboko su hitzaileen zentroa** regularki deitua da gertakari ezbehar desberdinak badirelarik Luhuso, Itsasu, Ezpeleta, Larresoro, Haltsu edo Kanbon berean. 809 dei ukan dituzte 6 herri horietarik 2023an, 429 bazituztela Kanbotikan beretik. Itsasukotz 109 deialdi eta hauetarik 81 jendeak sokorritzeko.

Herriko Etxeak jakinarazi nahi diote herritarrei komeni dela preziatzea Kanboko zentroko su hitzaileek eskaintzen duten zerbitzua. Urtean behin etxetan ibiltzen direlarik egutegien estakuruz su hitzaileak, harrera hoberena eta eskuzabaltasuna merezi dute.

**Le centre des sapeurs-pompiers de Cambo-Les-Bains** est régulièrement sollicité pour des interventions sur l'ensemble des communes de Louhossoa, Itxassou, Espelette, Larressore, Halsou, et Cambo-Les-Bains.

809 appels étaient dénombrés depuis ces 6 communes pour l'année 2023, 429 provenant de la seule commune de Cambo. Itxassou était concerné par 109 interventions dont 81 pour secours à la personne (malaise, blessé, chute...)

La mairie voudrait insister auprès des habitants de la commune pour reconnaître et apprécier la disponibilité des pompiers du Centre de Cambo- Les-Bains, et pour ne pas hésiter à réserver le meilleur accueil et une franche générosité lors de la tournée annuelle des calendriers.

## Ebaste eta etxe miazetarik zaintzeko Prévention des vols et cambriolages

Noiz nahi badira Itsasun ere arrangurak ebaste eta etxe miazten gatik, eta nahi ditugu agertu gutieneko aholku batzu jendarmeriak helaraziak.

### Ez errextu ohoinen lana

- Ontsa hetsi etxeko ate leihoak
- Ongi gakatu beribiletako ateak eta gakorik ez utzi gidalekuan
- Ez utzi balioko deusik beribilaren barnean.

### Arrêta berezia luzaz etxetik joatean

- Abisa auzoak edo ezagunak
- Ahalaz, hustu aski usu gutun untzia
- Ate leihoak ideki eta hetsi erazi egun guzietan
- Abisatu jendarmeria luzaz etxetik joatean

### Atxik begia erne

- Gaztia badirelarik beribil edo jende bitxiak inguraka
- Ez utzi jende arrotzik etxen sartzerat nola nahika

Régulièrement, des plaintes pour vols et cambriolages sont signalées sur Itxassou, et nous publions quelques règles élémentaires de prévention qui nous ont été communiquées par la gendarmerie.

### Ne facilitez pas la tâche aux voleurs

- Verrouillez les issues de votre habitation (portes, fenêtres, portail)
- Verrouillez les portières de votre véhicule ou ne laissez pas les clés sur le contact
- Ne laissez pas d'objets de valeur dans l'habitacle de celui-ci

### Soyez prudents : en cas d'absence prolongée

- Prévenez vos voisins ou des personnes de votre entourage
- Si possible faites vider la boîte à lettres régulièrement
- Faites ouvrir et fermer vos volets chaque jour
- Signalez le à la gendarmerie

### Soyez vigilants

- Signalez les véhicules et/ ou les individus (démarcheurs, visiteurs...) qui semblent se livrer à du repérage
- Ne laissez pas entrer ces personnes chez vous.

N'hésitez pas à prévenir la gendarmerie **en composant le 17**

# Outil en main : Gaztek hurbiltzen ofizialekin beren lanbideak / les jeunes touchent aux métiers avec les artisans

2023 abendoan sortu zen Errobi lurraldekotz Larresoron « tresna eskutan » elkarteak. Ofiziale batzuek erakutsiko diete gaztetxoei beren lanbidea, astean zenbait orenez. Eta gaztetxoak trebatzen ahalko dira esku lanbide zenbaiten ezagutzeko eta beren eskuz egin dezaketenaz jabetzen hasteko.

L'association « l'outil en main » avait vu le jour pour le secteur Errobi en décembre 2023 à Larressore. Des artisans s'engagent à donner de leur temps et à transmettre de leur savoir faire professionnel vers des jeunes qui ont entre 9 et 16 ans. En participant aux ateliers, les jeunes développent leur dextérité en réalisant des objets concrets. « L'outil en main » a déjà acquis une solide expérience en Pays Basque et sur l'Hexagone.

Jeunes curieux et artisans partageurs de savoir faire sont les bienvenus : [outilenmainerrobi@gmail.com](mailto:outilenmainerrobi@gmail.com) ou tel mairie de Larressore 05 59 93 03 07



L'Outil en Main  
Errobi

**Ikasturte denboran, asteartez 17.30tik 19 orenetarat, Luhusoko Urxuria aretoan, 9 urtetarik 16 urte arteko gazteentzat.**

**Les ateliers « l'outil en main » seront organisés les mardi de 17h30 à 19h à Urxuria Louhossoa.**

## Jantegi : Herrien eta familien sakelatik Communes et familles contribuent

